

denBBORA
CENTRO DE INVESTIGACIONES
EN ECONOMÍA SOCIAL



EROSKI
ENFERMERIA
ECONOMÍA SOCIAL



DENBBORA SAREAK NUST Sarearen Jardunaldi honetan parte hartu du: *“Kontziliazioa eta Europako ordutegia: aurrerapenak eta aukerak” (Conciliación y horario europeo: avances y oportunidades)*.

2015eko ekainaren 9an, Bilboko Udaleko Amaia Domingok eta Bizkaiko Foru Aldundiko Cristina Sarduyk Sarearen ildo orokorrak aurkeztu zituzten. EROSKI enpresa kidearen esperientzia ere aurkeztu zen, Marta Carazoren eskutik, bertako Gizarte Kudeaketako Zuzendaria.

Jardunaldian honi buruzko azterketa baten ondorioak aurkeztu ziren: *“Kontziliazio neurriak eta ordutegi aldaketa. Kataluniako enpresen aplikazio eta iritzia” (Medidas de conciliación y reforma horaria. Aplicación y opinión de las empresas catalanas)*.

Horren bidez egiaztatu genuen gero eta gehiago direla kontziliazio-neurriak hartzen dituzten enpresak, krisia gorabehera. Orokorrean, gehien aplikatzen diren kontziliazio neurriak ordutegi-malgutasuna eta lanaldi-murrizketa dira. Enpresen %39k Europako ordutegia aplikatzen dute dagoeneko, erabat edo partzialki, eta azpimarratu dute ordutegi aldaketak seme-alaben hezkuntzari eta emakumeen karrera profesionalari ekarri diela onura, batez ere.

Azpimarratu da, halaber, oraindik ere kontziliazio-neurriak aplikatzen ez dituzten enpresen %78 prest egongo lirakeela aplikatzeko, gizartean eta enpresa-kulturan aldaketak emango balira, edo/eta laneko kostuak handituko ez balira.

Jardunaldiaren barruan, Ordutegi Aldaketaren Ekimenaren sustatzaileak 2014an Kataluniako Parlamentuan sortu zen Ikerketa Batzordeari buruz hitz egin zuen eta 2016rako Ordutegi Aldaketarako Akordioa sinatzearen inguruko aurreikuspena eman zuen.

Azkenik, Unipresalud, Vertisub eta Metropolis CET enpresen praktika egokiak aurkeztu ziren.



Cristina Sarduy. Bizkaiko Foru Aldundia



EROSKIren aurkezpena. Marta Carazo



Jardunaldiaren foroa.